



Arartekoaren 2018R-2859-17 EBAZPENA, 2018ko azaroaren 26koa, Bergarako Udalari gomendatzen zaio dagozkion neurriak har ditzan, ostalaritza establezimendu batek eragiten dituen eragozpenak saihesteko, eta lehenbailehen eska diezaion jarduera horri ingurumen arloko legeria betetzeko.

Aurrekariak

1. Bergarako zenbait herritarrek salatu dute udalak ez duela esku hartu (...) tabernaren etengabeko funtzionamendu irregularrari aurre egiteko.

Zehazki, nabarmendu dute lokal horren erabilera-baldintza desegokiek zarata-eragozpen larriak eragiten dizkietela, eta adierazi dute jarduera horrek ez duela ixteko ordua errespetatzen. Halaber, azaldu dute kanpoan jarritako terrazaren funtzionamendu irregularrak eta inguru horretan biltzen den jendeak ateratako zaratak gorabehera akustiko larriak eragiten dituztela.

Diotenez, hainbat erreklamazio aurkeztu dituzte, eta zenbaitetan jarri dira udalarekin harremanetan, zaratak dakartzan arazo larriak konpontze aldera, baina Bergarako Udalak ez omen die eman gogobetetzen dituen irtenbiderik.

2. Erreklamazio hori izapidetzeko onartu du Arartekoak, eta, ondoren, Bergarako Udalari eskatu dio jakinarazteko zer jardun egin dituen udalak salatutako ustezko irregulartasunen harira.

3. Bergarako Udalak erakunde honi jakinarazi dio zer kontrol-neurri hartu diren udalerrian ostalaritza-establezimenduek, oro har, eragin ditzaketen gorabehera akustikoak saihesteko, eta ukitutako herritarrek eragozpenik ez jasateko.

Bestalde, ostalaritza-establezimendu horri dagokionean, alderdi hauek nabarmendu dira:

1. Ertzaintzari jakinaraztea, 2018ko urte osoan zehar, hilean bi aldiz era aleatorioan kontrola ditzala Bergara osoko terrazen eta establezimenduen itxiera-ordutegiak (erantsitako 3. Dokumentua da).

2. Bizilagunek salatu dituzten tabernen kasuan, tabernariekin adostea tabernekin jarritako bankuak gorde ditzatela, terraza-elementuak estali edo lotu ditzatela – horrela behin jarduera zerbitzurako itxita dagoenean ezingo dira erabili -, atek automatikoki ixteko elementuak ikustatu ditzatela.

3. Ostaleriei eskatzea jarduteko egutegi-proposamen bat egin dezatela, ostegunetako itxieraren ordua aurreratzea ekarri beharko duena –osteguna egun gaketzat hartzen baita bizilagunen egoerarekiko–.





2.- Gobernuko Udal Batzordeak 1990eko abenduaren 17an eman zuen tabernako irekiera-baimena (...) kalean

Terraza jartzeko baimena du

3.-Bergara Udalak ez du Udaltzaineko gaueko zerbitzurik, salbu eta tokiko jaiegunetan –egun horietan badu zerbitzua-. Ez du hitzarmenik ere Ertzaintzarekin, baina eskatzen dio– batzuetan ahoz besteetan idaztiz- tabernen kontrola egin dezala, eta udalak eskatutako laguntza jaso du behar bezain azkar.

4.-Udalak ez du egin soinu-ekipoen kontrolik

5.-Ixteko ordutegia ez errespetatzeagatik bizilagun baten salaketa jaso den guztietan, Ertzaintzaren txosten batekin berretsi ahal izan denean, zigor espedientea hasi ad eta zigortu egin da.

Era berean jardun da Udaltzaingoaren txostena egon bada.

Taberna honi ireki zaizkion espedienteak taberna- eta terraza-itxieraren ordutegia ez betetzeagatik izan dira.

6.-Udal honek argi eta garbi utzi nahi du baduela egoera hau konpontzeko borondatea, hasiera batean aldean artean adostutako soluzioak aurkituz, eta horretarako ez dugula zalantza izpirik izan alde guztiekin harremanak eta bilerak egiteko eta sustatzeko orden; baina, hala ere, ez diola uko egiten, jakina, indarreko araudia ez betetzeagatik erator litezkeen zaintza, -kontrol-eta zigor-neurriak hartzeari”.

4. Gogoeta horiek kexagileei helarazi dizkiegu; aitzitik, haien iritziz, udalak hartutako neurriak ez dira nahikoak, eta berriz ere diote kalte larriak pairatzen dituztela. Horrez gain, adierazi dute establezimendu horretatik datozen zarata-eragozpenak areagotu egin direla ostalaritza-jardueraren intentsitateak gora egin ahala. Gainera, azpimarratu dute jarduerak zein kanpoan jarritako terrazak ez dutela ixteko ordua errespetatzen.

Aurrekari horiek ikusita, honako gogoeta hauek jakinarazten dizkizut:

Gogoetak

1. Herri-administrazioek ingurumen-kontrolako esparruan dituzten ikuskatzeko eta zigortzeko ahalak gauzatu behar dituzte, indarrean dagoen ordenamendu juridikoa betearazteko eta interes orokorra defendatzeko. Udalak esku-hartzerik ez egiteak eragozpen handiak eragin diezazkieke eremu horretako herritarrei, batik bat ukitutako pertsoneri, alegia, inguru horretan bizi direnei.



2. Jarduera sailkatuen funtzionamenduaren eraginpean dauden interes kontrajarriak bateratzea du helburu ingurumen-kontrolako araudiak. Horretarako, jarduera horiek abian jartzeko orduan, prozedura zehatz bati jarraitu behar zaio eta neurri eta muga batzuk ezarri behar dira, jarduerak kalterik eragin ez ditzaten.

3. Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak onetsi zituen bizitegi-lurzoru hiritarrean abian jar daitezkeen jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri zein arriskutsuei —ostalaritza-establezimenduei, besteak beste— aplikatu behar zaizkien arau tekniko orokorrak.

Jarduera gogaikarri horiek sor dezaketen gehiegizko zarata —horixe da kekek hizpide duen gai nagusia— ekidite aldera, dekretu horrek ezartzen du ostalaritza-establezimenduek burutzen duten jardueraren arabera isolamendua izan behar dutela, eta beti errespetatu behar dituztela legerian aurreikusitako zarata-immisioaren parametroak.

4. Ez dakigu zer betekizun eta eskakizun tekniko ezarri zaizkion aztergai dugun jarduerari. Aitzitik, mota horretako jardueretan ezin da inola ere jarri elementu edo ekipo osagarriak —hala nola, musika ekiporik—, kalifikatu den memorian aipatu ez bada, ez eta horiek jartzeko baimenik eman, jarduerak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu eta, jardueraren izaera kontuan hartuta, zer sistema zuzentzaile aplikatu behar diren zehaztu arte.

5. Aldez aurretik baimendutako soinu-ekipoetan mugagailuak jarri behar dira derrigorrez, nahiz eta aurretik ezarritako soinu-maila errespetatu —dirudienez, hizpide dugun kasuan ez da hala gertatzen—. Horrez gain, behar bezala kontrolatu eta egiaztatu behar dira ekipo horietan jarritako potentzia-mugagailuak, inork horiek alda edo manipula ez ditzan.

6. Jardueraren ingurumen-lizentzia da, hain zuzen ere, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean (3/1998, otsailaren 27koa) jasotako prebentzio-kontrolerako mekanismoa.

Hortaz, lege horren 55.1. artikulua xedatzen du jarduera publikoak zein pribatuak, pertsonen kalteak eragin edo eragozpenak sor badiezazkiekete, herri-administrazioen esku-hartzearen mende daudela.

Arau horren arabera, bi baimen behar dira mota horretako jarduerak burutzeko: batetik, jarduera-lizentzia bat eskuratu behar da, eta han zehaztuko dira ingurumen-kalitate egokia bermatuko duten neurri zuzentzaileak; eta bestetik, horren ondoren, sustatzaileak jakinarazpen bat bidali beharko du, neurri horiek betetzen direla berrestea aldera.

59. bis artikulua arabera, lizentziak ondorerik gabe geratuko dira, baldin eta lizentzia horiek eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen ez badira. Gainera, lizentziak ofizioz aldatu beharko dira, egiaztatzen bada ezarritako neurri



zuzentzaileak ez direla nahikoak, ingurumenari, pertsonei edo beren ondasunei eragin diezaieketen kalteari dagokionez.

Horrenbestez, argi dago ingurumen-kontrola ez dela mugatzen jarduera hasi zenean emandako baimenari, eta hura behar bezala gauzatzeko, beharrezkoa dela jarraipena egitea eta emaitzak exijitzea aurretik zehaztutako kalitate-helburuei dagokienez.

7. Lokal horren titulartasuna eskualdatu omen dela-eta, jurisprudenzia orain dela hogeitun urte baino gehiago esaten hasi zenez, irekitzeko lizentziak egintza arautuak dira, eta, horien bidez, ordenamendu juridikoaren mugen baitan dagoen zerbait egiteko eskubidea aitortzen zaie herritarrei. Lizentzia horiek besterendu egin daitezke, batez ere horien titulartasuna bakarrik aldatu behar denean, izen-aldaketa baten ondorioz, lehenengo lizentziak ematean ez delako beharrezkoa izan pertsonen baldintzak haztatzea, egiazko lizentzia objektiboak zirelako, eta ez zirelako besterendu ezin daitezkeen motatakoak, Tokiko Korporazioetako Zerbitzuei buruzko 1955eko ekainaren 17ko Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz. (Besteak beste, 1944/4999 art.).

Hala ere, Tokiko Korporazioetako Zerbitzuei buruzko Erregelamenduaren 13. artikuluan arabera, obra, instalazio edo zerbitzuen baldintzei buruzko lizentziak besterendu egin daitezke, betiere, udal-korporazioari idatziz jakinarazi ondoren titular berriari besterendu zaiola; arau horren 15.1. artikuluan dio lizentzia horiek obra edo instalazioaren baldintzek iraun artean egongo direla indarrean. Lizentzia horien inguruko gainerako arauak erregelamenduaren 16. artikuluan biltzen dira. Agindu horri jarraituz, lizentzia horiek bete beharreko baldintzak betetzen ez badira gelditzen dira indarririk gabe. Halaber, lizentziak ezeztatu ahal izango dira baldin eta horiek ematea eragin zuten inguruabarrak aldatzen badira, edo bere garaian lizentzia ukatzea justifikatuko zukeen beste egoeraren bat sortzen bada. Horrez gain, lizentziak oker eman baziren, bertan behera utzi ahal izango dira.

Horretarako, Auzitegi Gorenak bere garaian adierazi zuen jarduera baten titulartasuna besterentzeak beste irekitzeko lizentzia bat izapidetzea dakarrela, eta, beraz, horri lotuta, erabakigarritzat jo zuen agintaritzak eskudunak egiaztatzea besterendu nahi den lizentziak oinarri duen egoera legezkotasun-baldintza egokietan dagoela. Horiek horrela, Auzitegi Gorenaren 1983ko otsailaren 23ko Epaia (938. art.), 1986ko otsailaren 28koa, (1626. art.) eta 1996ko otsailaren 13koak (1120. art.) hauxe zehaztu zuten kontu horren harira:

"(...) los ayuntamientos, conforme entre otros, a lo dispuesto en el Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales y en el Reglamento de Actividades Molestas, tienen potestad para vigilar e imponer esa correspondencia entre la licencia y la actividad ejercida y para prohibir actividades ejercidas sin licencia, cual es en buena medida la ejercida de forma distinta a la autorizada..."





Horrenbestez, Bergarako Udalak ezin du baimenik eman jarduera horrek funtzionatzen jarrai dezan, bere garaian emandako lizentzian jasotako betekizunak betetzen ote dituen egiaztatu gabe, eta, hala badagokio, titular berriari dagozkion irekitzeko lizentziak izapidetu gabe.

8. Horrelako egoerak ekiditeko, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren (3/1998, otsailaren 27koa) 64. eta 65. artikuluek ezartzen dute udal organo eskudunek —, dagozkion zehapen-espedienteak abiarazteaz gain— esku hartu beharko dutela exijitzeko jarduerak araudiarekin bat egin dezala 6 hilabeteko epean, eta udal-agintaritzak jarduera aldi baterako edo behin betiko ixtea erabaki ahal izango duela, jarduera erregularizatu arte.

9. Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak toki-administrazioen esku uzten ditu instalazio-lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizunak, bai eta, hala badagokio, funtzionamendu egokia bermatzeko eta hirugarrenei eragozpenak eta arriskuak saihesteko ezar litekeen beste edozein neurri zuzentzaile kontrolatzeko eta ikuskatzekoak ere.

Gainera, manu horren 47. artikulua ezartzen du agintaritza eskudunek, ebazpen arazoituaren bidez eta interesdunei entzunaldia eskaini eta gero, nahitaezko titulu gaitzailerik ez duten lokal eta instalazioak itxi eta zigilatu ahal izango dituztela, horiek erregularizatu arte gutxienez. Nahiz eta horiek legeztatuta egon, berehalako arriskua dagoela sumatzen baldin bada, neurri horiek har daitezke, agintaritza eskudunek eta ikuskapena egiten duten agenteek edo funtzionarioek entzunaldirik eman gabe. Premiazko neurri hori hartzen baldin bada, berrogeita zortzi orduko epea egongo da agintaritza eskudunak erabakia berrets dezan; bestela, ondorerik gabe geratuko da.

10. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskinean ezarritako helburuak bete behar dira, hain zuzen ere, eremu urbanizatuak eta etxebizitza- eta bizitegi-erabileretara bideratutako eraikinen barruko aldeko esparru bizigarriak aplikatzekoak diren kalitate akustikoko helburuak.

11. Hortaz, udal-administrazio horri dagozkion ingurumen-kontrolako betebeharrak betetze aldera, ezinbestekoa da, ukitutako herritarren salaketa gehiago jasotzekotan, udal-ikuskapeneko zerbitzu teknikoek dagozkion neurketak eta egiaztapenak egitea, frogatzeko gorabehera akustikoek legerian aurreikusitako gehieneko mailak errespetatzen dituztela, eta hirugarrenek kalterik jasan ez dezaten. Gainera, neurketa horiek jarduera bete-betean dagoen unean egin behar dira, batik bat eragozpenak gaez eragiten direlako.

Bergarako Udalak ez balitu edukiko beharrezkoak diren bitarteko teknikoak zarataren fokua inguruan zein ukitutako pertsonen etxebizitzetan duen eragina neurtzeko, baliteke udal zerbitzu teknikoak unean-uneko zein aldi baterako unitate





tekniko bat eratzea; hala badagokio, enpresa laguntzaileen esku utzi ahal izango du kontrol hori, balioespen tekniko egokia jasotzeko. Halaber, laguntza eska diezaieke, berariaz, Gipuzkoako Foru Aldundiko nahiz Ertzaintzako zerbitzu teknikoei, haiek egiazta ditzaten salatutako zaratak; halaxe egin zen horrelako lokalen ixteko orduarekin. Nolanahi ere, toki-erakundeei dagokie ostalaritza-jarduera nola burutzen den egiaztatzeko neurriak hartzea, eta soinu-iturria hirugarrenen interes legitimoetan eragiten ari den eragozpenak eta kalteak prebenitzea.

12. Tabernaren kanpoaldean jarritako terrazari dagokienean, Bide Publikoan Terrazak Jartzeko Udal Ordenantza Arautzailean, 2009ko azaroaren 9an GAOn argitaratutakoan, jasotako baldintzak eta eskakizunak bete behar dira.

13. Era berean, jarduera horrek abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuan — Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituen Euskal Autonomi Elkartearen eremuan— eta haren ondoko aldaketetan ezarritakoa bete beharko du. Horrez gain, 10. artikuluan aurreikusitako debekua errespetatu behar da, hau da, jardueraren sustatzaileek ez dute utzi behar lokalen kanpoaldean edaririk kontsumitzen 22:00etatik aurrera. Hori aplikatuko da, bazter utzi gabe udal bakoitzak muga handiagoak ezar ditzakeela bere ordenantzetan, eta terrazetarako zein antzekoetarako emandako lizentzietan xedatutakoa gorabehera.

14. Azaldutako aurrekariak aintzat hartuta eta unean-uneko kontrolak egiten badira ere, Arartekoak ondorioztatu du udalak orain arte hartutako neurriak ez direla behar adinakoak izan, eta ez direla eraginkorrak izan udal-erakunde horrek egin beharreko jarduna eta jarraipena justifikatzeko, inguru horretan eragindako gorabehera akustikoa ekiditeko eta jarduerak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko. Ezin da denbora handiagoz jasan jarduera horren nahiz kanpoaldeko terrazaren funtzionamendu irregularra. Horrez gain, guk dakigula ez da esku-hartzerik egin gehiegizko zarata ateratzen ote den egiaztatzeko.

15. Bergarako Udalak modu saihestezinean erabili behar du ordenamendu juridikoak ematen dion ahalmena, hirugarrenei eragozpenak edo kalteak sor diezazkioketen soinu-immisioak prebenitzeko eta, hala badagokio, horiei konponbidea bilatzeko.

16. Badakigu instalazioak zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunak betetzeak zailtasunak dakartzala, eta, horren harira, uste dugu oreka aurkitu behar dela merkataritza-jarduera edo zerbitzu-jarduera arrakastatsuen eta auzotarrek dituzten eskubideen artean, eskubide horiek atsedenerako eskubidea eta kalitatezko eta soinu-nahasmendurik gabeko inguruneaz gozatzeko eskubidea izanik. Hala ere, emandako datuen arabera, esan dezakegu ez dela orekarik eta proportzionaltasunik izan. Are, frogatu da jarduera horren funtzionamendu irregularra toleratu izan dela, orain dela hogeit urtetik baino gehiagotik.



Hori dela eta, Bergarako Udalak lehenbailehen zehaztu behar ditu beharrezko baliabideak eta prozedurak, establezimendu horren inguruan bizi diren herritarren eskubideak benetan gauza daitezten. Izan ere, jarduera horrek sortutako eragozpenek ez dute zertan asaldatu herritar horien lasaitasuna.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egiten zaio bergarako Udalari

GOMENDIOA

Begarako Udalak beharrezkoak diren ikuskatze teknikoak egin ditzala, jarduera hori zehazki zer egoeratan dagoen jakiteko, eta, hala badagokio, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren (3/1998, otsailaren 27koa) 64. eta 65. artikuluetan aurreikusitako ingurumen-kontrolako neurriak hartzeko.

Lortutako emaitzak oinarri hartuta, Bergarako Udalak eskatu behar du beharrezkoak diren neurriak hartzeko jarduerak nahiz terrazak etengabe bete ditzaten araudian jasotako xedapenak, batik bat jarduerak inguruan eragindako gorabehera akustikoei dagokienean.

Horrez gain, Bergarako Udalak bermatu behar du zaratari dagokionez ezarritako kalitate akustikoko helburuak betetzen direla; horiek aplika dakizkie eremu urbanizatuei eta etxebizitza- edo bizitegi-erabileretara bideratutako eraikinen barruko aldeko esparru bizigarriei.

